

## EFA227/16/LINGUATEC PROIEKTUAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO ADMINISTRATIBORAKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZAK

“Mugaz gaindiko kooperazioaren garapena eta hizkuntza-  
teknologiaren jakintzaren transferentzia”

### **BALDINTZA ADMINISTRATIBOAK**

2018ko otsailaren 12a

#### **1. SARRERA.**

ELHUYAR FUNDAZIOAK zientzia eta euskara bultzatu, sustatu eta garatzeko helburua du fundazio gisa. Kultura-elkarte gisa sortu zen, eta 2002an fundazio bilakatu zen. Harrezkeroztik, zientzia eta teknologia dibulгатzen eta euskara garatzen aritu da Elhuyar Fundazioa etengabe.

Helburu horrekin, Elhuyarrek hainbat jardura egiten ditu; kasurako, lankidetzaproiektuetan parte hartzen du, hala nola EFA227/16/LINGUATEC “Mugaz gaindiko kooperazioaren garapena eta hizkuntza-teknologiaren jakintzaren transferentzia” proiektuan. Proiektu hori POCTEFA Programazio Batzordeak onartu zuen behin betiko 2018ko urtarrilaren 31n, 1.227.500,00 €-ko aurrekontuarekin, zeina Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatu baitzuen % 65ean (797.875,00 €) Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren bidez.

EFA 227/16/LINGUATEC proiektuaren helburua da aragoieraren, euskararen eta okzitaniaren digitalizazio-maila hobetuko duten baliabide, tresna eta aplikazio linguistiko berritzaileak garatu, frogatu eta zabaltzea. Horretarako, partzuergo bat du, 6 erakunde hauek osatua:

1. 1. bazkidea, taldeburua: ELHUYAR FUNDAZIOA
2. 2. bazkidea: LO CONGRÈS PERMANENT DE LA LENGA OCCITANA
3. 3. bazkidea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
4. 4. bazkidea: CNRS (CENTRE NATIONAL DE LA RECHERCHE SCIENTIFIQUE)-  
DELEGATION REGIONALE MIDIPYRENEES
5. 5. bazkidea: EUSKALTZAINDIA
6. 6. bazkidea: SOCIEDAD DE PROMOCIÓN Y GESTIÓN DEL TURISMO ARAGONÉS SLU

ELHUYAR FUNDAZIOAK eta gainerako bazkideek proiektua garatzeko jardura batzuk dituzte esleituak. Kudeaketarako eta koordinaziorako kanpoko laguntza tekniko behar da, proiektuko bazkide guztiei aholku emateko eta haiek koordinatzeko; baldintza-orri hauetan arautzen da kanpoko laguntza tekniko horren kontratazioa.

“Gastu komunak banatzeko bazkideen akordioa”n jasotzen denez (2018ko otsailaren 1ean sinatu zen), bazkideek kontratazio-organotzat hautatu dute ELHUYAR FUNDAZIOA (proiektuko 1. bazkidea), eta proiektuaren kudeaketa eta koordinazio

administratiborako laguntza teknikoa kontratatzeko prozesuaren ardura du, proiektuko partzuergoaren ordezkari gisa.

## **2. KONTRATUAREN HELBURUA.**

EFA227/16/LINGUATEC proiektuaren kudeaketa eta koordinazio administratiborako laguntza teknikoaren kontratua zuzenduko duten baldintza tekniko eta ekonomikoak definitzea da baldintza-orri hauen helburua.

### **2.1 Jardueren xehetasuna.**

Proiektuaren kudeaketari eta koordinazioari dagozkien jarduera eta lan teknikoetan oinarritzen dira zerbitzuak, POCTEFAk ezarritako beharrak betetzeko eta proiektuan ezarritako helburu eta entregatzekoak lortzeko, bereziki:

Lan espezifiko hauek egin beharko dira kontratazio honen esparruan:

- Proiektuaren koordinazio orokor administratiboa
- Aurreikusitako jarduera eta emaitzen plangintza egitea
- Programaren autoritateekiko komunikazioa
- Bazkideen zalantzak argitzea
- POCTEFA programaren eskaerei erantzutea
- Partzuergoko kideen arteko komunikazioa
- Partzuergoaren bilerak antolatu eta koordinatzea
- Txostenak eta gastu-justifikazioak egitea
- Finantzen segimendua egitea
- Betebeharrak betetzea eta araudi aplikagarria errespetatzea.

## **3. KONTRATAZIO-ORGANOA.**

ELHUYAR FUNDAZIOko zuzendari nagusia izango da kontratazio-organoa, dituen eskumenekin bat.

ELHUYAR FUNDAZIOko langileek osatuko dute kontratuaren unitate kudeatzailea

## **4. KONTRATUARI APLIKATZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ARAUAK**

Dokumentu honen ondorioz egiten den kontratua pribatua izango da, eta haren edukia, betetzea, gauzatzea, ondorioak eta iraungitzea zuzenbide pribatuari lotuko zaizkio.

Araudiari dagokionez, xede den kontratua hauei lotzen zaie: 12/1994 Legea, 1994ko ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Elkarteko fundazioei buruzkoa; 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena; 15/1999 Legea, Datu Pertsonalak Babestekoa; 1720/2007 Errege Dekretua, 15/1999 Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena; eta aplika daitekeen gainerako araudia.

Baldintza-orri hauetan berariaz jasotzen ez denari dagokionez, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan (2011ko azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena) ezarritakoa bete beharko da.

## **5. AURREKONTUA, GEHIENEO PREZIOA ETA BALIO TOTAL ZENBATETSIA.**

Kontratuaren aurrekontua LAUROGEITA BEDERATZI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST euro (89.875,00 €) da, BEZik gabe.

Ezarritako gehieneko prezioa gainditzen duten eskaintzak ez dira onartuko.

ELHUYAR FUNDAZIOAren iritziz, ohi baino baxuagoak diren eskaintzak ez dira onartuko, baja ausartegizat jotzen badira. Neurrigabetzat edo ausartegizat joko dira ezaugarri hauek dituzten eskaintzak:

- Eskaintzaile bakarra izanda, eskaintza lizitazioko oinarri-aurrekontua baino txikiagoa denean, % 25etik gorako aldearekin
- Bi eskaintzaile izanda, aurkeztutako beste eskaintza baino txikiagoa denean eskaintza, % 20tik gorako aldearekin
- Hiru eskaintzaile izanda, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, % 10tik gorako aldearekin Hala ere, batezbesteko horren zenbaketa egitean, kanpo utziko da zenbateko handieneko eskaintza, betiere batezbesteko hori gainditzen badu % 10etik gorako aldearekin. Kasu guztietan, neurriz kanpokotzat joko dira kantitate horretatik % 25 baino gehiago jaisten direnak.
- Lau eskaintzaile edo gehiago izanda, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, % 10etik gorako aldearekin Hala ere, batezbesteko hori % 10etik gorako aldearekin gainditzen duten eskaintzak baldin badaude haien artean, beste batezbesteko bat kalkulatu da adierazitako ezaugarriak ez dituzten eskaintzekin bakarrik. Edonola ere, hiru eskaintza baino gutxiago geratzen badira, hiru eskaintza txikienen zenbatekoarekin kalkulatu da batezbesteko berria.

## **6. LANEN JABETZA.**

Lanak, edozein fasetakoak, ELHUYAR FUNDAZIOAren eta EFA227/16/LINGUATEC Proiektuaren Partzuergoa osatzen duten gainerako bazkideen jabetzakoak izango dira; beraz, ELHUYAR FUNDAZIOAk edozein unetan jaso ahal izango ditu egindako lanen zati entregatuak, betiere behin betiko elaborazio-programarekin bateragarria bada eta ez badie haien garapenari eragiten.

## **7. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA.**

Esleipendunak ezingo ditu beretzat erabili ez eta hirugarrenei eman kontratatutako lanen datuak. Nolanahi ere, esleipenduna izango da betebeharrak hori ez betetzetik eratorritako kalte-galeren erantzulea.

1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babestekoan, jasotzen denarekin bat etorriz, esleipendunak kontratua gauzatzearen ondorioz duen informazioa ELHUYAR FUNDAZIOAk ematen dizkion jarraibideen arabera tratatuko du, ez du erabiliko kontratuaz bestelako helburuetarako, eta ez die beste pertsona batzuei jakinaraziko.

## 8. ORDAINKETA.

Kontratututako laguntzaren ordainketa honela egingo da:

- Prezioaren % 20 Kontratua sinatzean.
- Gainerako % 80a bost ordainketa berdinetan, proiektuaren sei hileko bakoitzean bat. Proiektuaren gauzatzealdian egingo da azken fakturazioa.

Zerbitzuaren emaileak dagozkion fakturak aurkeztu ondoren egingo dira ordainketa guztiak.

Nazioz gaindiko Partzuergoaren bazkideek gastu komunak banatzeko duten akordioarekin bat, esleipendunak sei bazkideen artean banatu beharko du fakturazioa, banaketa honen arabera:

Socio	Cuantía	Porcentaje reparto %
ELHUYAR FUNDAZIOA	22500	25,03
LO CONGRÈS PERMANENT	15175	16,88
UPV	11700	13,02
CNRS	17100	19,03
EUSKALTAINDIA	14400	16,02
SOCIEDAD DE PROMOCIÓN Y GESTIÓN DEL TURISMO ARAGONÉS	9000	10,01
<b>Total</b>	<b>89875</b>	<b>100,00</b>

## 9. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LUZAPENA.

Proiektua gauzatzeko aldia 36 hilabete da, 2018/01/01etik 2020/12/31ra.

Hau izango da kontratuaren iraupen-epea: Kontratua sinatzen den egunetik proiektuaren Gastuen Azken Txostena eta Ziurtapena aurkezten diren egunera; epe hori ezingo da izan 6 hilabetetik gorakoa, proiektuaren azken gauzatzealdia amaitzen denetik.

Proiektua gauzatzeko luzapen bat ematen bada, Kontratu honen epea zabaltzea negoziatuko da, luzapenak estaltzen duen aldirako.

## 10. ESLEIPENA.

Prozedura arrunt bidez lizitatuko da prozedura, eta eskaintza ekonomikoki onenari esleituko zaio, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan (2011ko azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena) erregulazio harmonizatuari lotzen ez zaizkion kontratuen esleipenerako ezartzen diren arau eta printzipioekin bat etorritik.

Lizitazioaren iragarkia webgune honetan argitaratuko da: <https://www.elhuyar.eus>

## **11. LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO AURRETIKO BALDINTZAK ETA KAUDIMEN TEKNIKO ETA EKONOMIKOAREN INGURUKO BALDINTZAK.**

Esleipen-prozeduran parte har dezakete pertsona fisiko edo juridikoek, betiere haien xede edo jarduerak zuzeneko erlazioa badu kontratuaren xedearekin, jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute, jarraian ezartzen diren kaudimen-baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen badute eta zerbitzuak behar bezala emateko behar diren elementu pertsonal eta materialak badituzte.

a.) **Kaudimen teknikoko baldintzei dagokienez**, hauek ziurtatu beharko dira:

### A) ENPRESA LIZITATZAILEAREN esperientzia

- Esperientzia gutxienez azken 5 urteetan laguntza teknikoa emateko 4 lanetan, INTERREG IV POCTEFA 2007-2013 programaren esparruan mugaz gaindiko kooperazio-proiektuen kudeaketan eta koordinazioan.
- Esperientzia gutxienez azken 3 urteetan laguntza teknikoa emateko 3 lanetan, INTERREG V POCTEFA 2014-2020 programaren (1. deialdia) esparruan mugaz gaindiko kooperazio-proiektuen kudeaketan eta koordinazioan.

### B) Esleitutako GUTXIENEN LANTALDEAREN esperientzia (giza baliabideak)

- Proiektuari esleitutako lantaldeak, gutxienez, profil hauek izan behar ditu, gutxienezko ezagutza- eta esperientzia-maila hauekin:
  - PROIEKTU-ZUZENDARI BAT, unibertsitate-titulua duena, gutxienez hamar (10) urteko esperientzia profesionala duena Espainiako-Frantziako mugaz gaindiko europar lurralde-kooperazioko programa eta proiektuen (INTERREG) kudeaketako eta koordinazioko aholkulari gisa.
  - AHOLKULARI BAT, unibertsitate-titulua duena, gutxienez bost (5) urteko esperientzia profesionala duena Espainiako-Frantziako europar lurralde-kooperazioko programa eta proiektuen (INTERREG) kudeaketan eta koordinazioan.
  - PROIEKTU-TEKNIKARI BAT, egin beharreko lanekin bat datorren unibertsitate-titulazioa duena.

Proiektuan arituko den lantaldeak gaztelania eta frantsesa menderatzen dituela ziurtatu beharko du. Ez da onartzen inolako zerbitzurik azpikontratatzeari.

Lizitatzailerak beste teknikari batzuk hartu ahal izango ditu, proposamen teknikoarekin bat.

b.) Enpresa lizitatzailerak, era berean, eskaini beharreko zerbitzua bermatzeko adinako **kaudimen ekonomikoa** ziurtatu beharko du, eta, horretarako, baldintza hauek betetzen dituela ziurtatu beharko du:

- 179.000 €-tik gorako negozio-zifra bat izatea azken hiru ekitaldietako bakoitzean.
- Urtean batez beste 5 langile baino gehiago izatea azken 3 urteetan.
- Arrisku profesionalen kalte-ordainen aseguru bat izatea indarrean, 89.000 €-ko edo

hortik gorako kapital aseguruarekin.

## **12. IRIZPIDE OBJEKTIBOEN INGURUAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Proposamenek hiru gutun-azal izan behar dituzte, itxiak eta lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatuak. Hauek adierazi behar dira gutun-azal bakoitzean:

- 1.- Prozeduraren erreferentzia.
- 2.- Parte-hartzailearen izena.
- 3.- Haren helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa, jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko.
- 4.- Azkenik, gutun-azal bakoitzean aipamen hauek jaso beharko dira:

1. gutun-azalean, DOKUMENTAZIO OROKORRA
2. gutun-azalean, DOKUMENTAZIO TEKNIKOA
3. gutun-azalean, DOKUMENTAZIO EKONOMIKOA

ELHUYAR FUNDAZIOAK eskubidea du proposamenetan aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzen duen dokumentazioa edota proposamenetako edukiari buruzko informazio gehigarria eskatzeko eskaintzaileei, betiere argibide gehiago izateko baino ez bada eta ez bada aurkeztutako proposamena zabaltzen, aldatzen edo ordezkatzeko; eskaintzaileak informazio eta dokumentazio horiek emateko beharra du.

Edonola ere, aurkezten den dokumentazioak jatorrizkoa edo egiazkoa izan beharko du, indarrean den araudiaren arabera. Salbuespenik gabe, hurrengo orriko klausuletan aipatzen diren adierazpenak edo zerrendak eskaintza egiten duen enpresa lizitatzaileraren ordezkariak sinatu beharko ditu, orri guztietan.

### **A.) 1. GUTUN-AZALA “DOKUMENTAZIO OROKORRA”.-**

1. gutun-azalean dokumentu hauek izan behar dira:

- a.) Enpresaburuaren nortasuna eta, hala badagokio, haren ordezkariarena, ziurtatzen dutenak.
- b.) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren baldintzak frogatzen dituztenak, aurreko 11. atalean adierazitakoarekin bat.
- b.) Kaudimen tekniko edo profesionala frogatzen dutenak, aurreko 11. atalean aurreikusitakoaren arabera.
- d.) Lizitatzailerak kontratatzeke debekurik ez duela dioen adierazpen bat
- e.) Beste dokumentu batzuk.

**a.) Enpresaburuaren nortasuna eta haren kontratatzeke ahalmena ziurtatzen duten dokumentuak.**

Honela:

Enpresaburu indibidualak direnean: espainiarrentzat, Nortasun Agiri Nazionalaren edo legez hura ordezkatzeko duenaren kopia egiaztatua; Europar Batasunekoak ez diren

estatueta atzerritarrentzat, pasaporte, egoitza-baimena eta lan-baimena; Europar Batasuneko estatueta atzerritarrentzat, beren nortasuna beren herrialdeko araudiaren arabera ziurtatzen duen dokumentazioa.

Enpresaburua pertsona juridiko bat bada: Eraketa-eskritura edo -dokumentua, estatutuak edo haren jardura arautzen duten arauak azaltzen diren fundazio-ekintza, hala badagokio, erregistro publiko egokian behar bezala jasoak, zer-nolako pertsona juridikoa den kontuan izanda.

Europar Batasuneko enpresaburu ez-espainiarrak dagokion erregistroan sartuta ziurtatuko da haien jarduteko gaitasuna, haien bizileku den estatuko legediaren arabera, edota zinpeko deklarazio bat nahiz egiaztagiri bat aurkeztuta, arauetan jasotzen den moduan, aplikatzekoak diren Europako xedapenekin bat.

Gainerako atzerritar enpresaburuek Espainiako Ordezkaritza Diplomatikoaren edota enpresak egoitza duen lurralde-eremuko bulego kontsularraren txosten bidez ziurtatuko beharko dute beren jarduteko gaitasuna.

Proposamenaren sinatzaileak eskaintzailearen izenean eta hura ordeztuz jarduten badu, haren nortasuna ziurtatzen duena (espainiarrentzat, Nortasun Agiri Nazionalaren edo legez hura ordezkatzeko duenaren kopia egiaztatua; Europar Batasunekoak ez diren estatueta atzerritarrentzat, pasaporte, egoitza-baimena eta lan-baimena; Europar Batasuneko estatueta atzerritarrentzat, beren nortasuna beren herrialdeko araudiaren arabera ziurtatzen duen dokumentazioa). Era berean, pertsona juridikoak ordezkatzeko baditu, ordezkatuaren izenean kontratuan parte hartzeko ahalorde askietsia duela erakutsi beharko du, Merkataritza Erregistroan behar bezala jasota, merkataritza-legediak hala agintzen duelako.

### **b.) Kaudimen ekonomikoa ziurtatzen duten dokumentuak**

Kaudimen ekonomikoa ziurtatzeko, hauek aurkeztu beharko dira:

- Azken 3 ekitaldi itxietako urteko kontuak.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren txosten bat ("Alta emanda dauden langileen batez besteko kopurua") azken 3 urteetako bakoitzeko.
- Erantzukizun zibil profesionaleko aseguru-polizaren kopia bat, eskaintza aurkezten duen erakundeak sinatua, eta azken ordainagiria.

### **c.) Kaudimen teknikoa ziurtatzen duten dokumentuak**

Kaudimen teknikoa ziurtatzeko, hauek aurkeztu beharko dira:

- Azken 5 urteetan laguntza teknikoa emateko gutxienez 4 lanetan aritu izana, INTERREG IV POCTEFA 2007-2013 programaren esparruan mugaz gaindiko kooperazio-proiektuen kudeaketan eta koordinazioan, erakusten duten kontratuen kopia edo zuzenbidean bermatutako beste froga batzuk.
- Azken 5 urteetan laguntza teknikoa emateko gutxienez 3 lanetan aritu izana, INTERREG IV POCTEFA 2014-2020 programaren esparruan mugaz gaindiko kooperazio-

proiektuen (jada bukatuak nahiz abian direnak) kudeaketan eta koordinazioan, erakusten duten kontratuen kopia edo zuzenbidean bermatutako beste froga batzuk.

- LANTALDEAREN adierazpena, eskaintzaileak zerbitzuak zuzenean emateko konpromisoa hartzen duela jasotzen duena, taldeko partaide bakoitzaren curriculum vitae eta eskaintza aurkezten den datan indarrean dituzten lan-kontratuak.
- Taldeko kideren batek frantseseko eta gaztelaniako C1 mailak dituela jasotzen duen ziurtagiria. Halakorik izan ezean, hizkuntza horietan bigarren hezkuntza edo goragoko mailaren bateko titulazio akademikoa.

Enpresaburuek emandako datuen konfidentziasuna errespetatuko du kontratazio-organoak.

#### **d.) Lizitzaileak kontratazeko debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen bat**

3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan (2011ko azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena) aurreikusten diren kontratazeko debekurik ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena, orri hauetako **II. eranskinaren** arabera.

#### **e.) Beste dokumentu batzuk**

Kontratazeko hautatzen den eskaintzaileak 10 egun balioduneko epea izango du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzeko, autoritate egokiek emandako ziurtagiri administratiboen bidez.

Atzerritar enpresek edozein ordenatuko Espainiako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioa beteko dutela eta egokitu dakiekeen atzerritar jurisdikzio-eskumenari uko egingo diotela jasotzen duen adierazpena aurkeztu beharko dute, prozedura honetatik eratorritako erlazio juridikoetatik zuzenean nahiz zeharka gerta daitezkeen gorabeheretarako.

### **B.) 2. GUTUN-AZALA “DOKUMENTAZIO TEKNIKOA”**

Gutun-azal horretan proposamen tekniko bat jarri behar da, orri hauetan zehazten diren irizpideen arabera baloratzeko moduan idatzia; zehazki, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. Lanen metodologia eta antolaketa
2. Zerbitzuen edukia
3. Esleipendunak ekarriko dituen langileen zerrenda: teknikari bakoitzaren deskribapena, haren curriculum eta kontratatzen den zerbitzuan izango dituen funtzioak. Eta “Eskumenen gehikuntza eta gutxieneko taldearekiko gehitutako giza baliabideak (25 punturaino)”

### **C.) 3. GUTUN-AZALA “PROPOSAMEN EKONOMIKOA”**



Orri hauetako **I. eranskinean** (gehieneko kontratazio-aurrekontuari buruzkoa) jasotzen den ereduaren arabera egindako proposamen ekonomikoaren ale bat eduki beharko du 3. gutun-azalak, paperezkoa. Proposamen ekonomikoan adierazten diren kopuruak (letrazkoak eta zenbakizkoak) ez badatoz bat, zenbateko handiena izango da beti kontuan.

### **13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.**

Eskaintza onuragarriena hautatuko da; haren balio ekonomikoa ez ezik, jarraian azaltzen diren irizpideak ere baloratuko dira; kontratazioa esleitu gabe ere utz daiteke.

Kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onena duen eskaintzari esleitu beharko dio kontratua kontratazio-organoak, gardentasun-printzipioak betez eta tratu-berdintasuna emanda kontratista guztiei, interes-gatazkarik gabe.

Interesa duten enpresen proposamenak ZERO (0) puntutik EHUN (100) puntura baloratuko dira, jarraian azaltzen diren irizpideak kontuan izanda, garrantzi handienekotik txikiagokoenera eta adierazten den haztapenarekin

#### **a.) Irizpide ez-ekonomikoak, 70 punturaino**

Hauek baloratuko dira atal honetan:

- |                                                                                                      |               |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| 1 - <u>Lanen metodologia eta antolaketa</u>                                                          | 20 punturaino |
| 2 - <u>Zerbitzuen edukia</u>                                                                         | 25 punturaino |
| 3 - <u>Eskumenen eta giza baliabideen gehikuntza gutxieneko taldearekiko (balorazio automatikoa)</u> | 25 punturaino |

#### **b.) Irizpide ekonomikoak, 30 punturaino**

Formula hau erabiliko da puntuazioa kalkulatzeko:

$$P=K* (X/Y),$$

non:

P: eskaintza bakoitzari esleitutako puntuak

K: puntuazio posible altuena (30 puntu)

X: jasotako eskaintza merkeena

Y: baloratzen den enpresaren eskaintza

Hauek dira irizpide ez-ekonomikoak baloratzeko irizpideak:

#### **A) Proposamen teknikoa (Gehienez 70 puntu)**

##### A1. 1 - Lanen metodologia eta antolaketa (20 punturaino)

- Lan-metodologiaren deskribapena. 10 punturaino.
- Egin beharreko lanen egitura. 10 punturaino.

### A2. Zerbitzuen edukia (25 punturaino)

- Zerbitzuen deskribapen xehatua. 20 punturaino.
- Sortzen diren entregagaiak. Entregagaien kopurua eta kalitatea baloratuko da. 5 punturaino.

### A3. Eskumenen eta giza baliabideen gehikuntza gutxieneko taldearekiko (25 punturaino)

Espainiako-Frantsiako mugaz gaindiko europar lurralde-kooperazioko programa eta proiektuen kudeaketako eta koordinazioko proiektuaren eskumen minimoaren gehikuntza:

A3.1) Eskumenen gehikuntza PROIEKTUAREN ZUZENDARIari dagokionez (gehienez 10 puntu)

- Espainiako-Frantsiako mugaz gaindiko europar lurralde-kooperazioko programa eta proiektuen (INTERREG) kudeaketako eta koordinazioko lanetan aholkulari gisa edo talde-zuzendari gisa parte hartu izana ziurtatzen badu: 5 puntu proiektu bakoitzeko, eta gehienez 10 puntu.

A3.2) Eskumenen gehikuntza AHOLKULARIari dagokionez (gehienez 5 puntu)

- Hizkuntzekin eta/edo IKTekin erlazionatutako Espainiako-Frantsiako mugaz gaindiko europar lurralde-kooperazioko programa eta proiektuen (INTERREG) kudeaketako eta koordinazioko lanetan aholkulari gisa eta/edo teknikari gisa parte hartu izana ziurtatzen badu: 5 puntu proiektu bakoitzeko, eta gehienez 5 puntu.

A3.3) Giza baliabideen gehikuntza GUTXIENKO LANTALDEARI dagokionez (gehienez 10 puntu)

Orri hauetako 11. artikuluan adierazten diren gutxieneko eskakizunak betetzen dituen aholkulari gehigarri proposatu batekin: 5 puntu, eta gehienez 5 puntu.

Proiektuko hizkuntzetako bat (euskara, okzitaniera eta aragoiera) dakiela (C1 maila) ziurtatzen duen proiektu-teknikari proposatu batekin: 5 puntu, eta gehienez 5 puntu.

## **14. LAN-ERLAZIOEN ESKLUSIOA.**

Zerbitzu profesionala merkataritza-erlazio batean egingo da, eta inola ere ezingo da eratorri lan-erlazorik enpresa esleipenduneko langileekin edota esleipendunarekin berarekin baldin eta pertsona fisikoa bada.

Aurrekoa gorabehera, ELHUYAR FUNDAZIOAK, kontratatutako zerbitzua ongi egiten dela bermatzeko, ematen diren zerbitzuen segimendua egin beharko du, eta haiek garatzeko jarraibideak ezarri beharko ditu.

## **15. LAN- ETA GIZARTE-BETEBEHARRAK.**

Lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren inguruan indarrean diren xedapenak eta ordenamendu juridikoan ezarritako behar orokor nahiz bereziak betetzeko beharra du esleipendunak; behar horiek betetzen ez baditu, ELHUYAR FUNDAZIOAK ez du inolako erantzukizunik izango.

## 15. ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA.

Eskaintzak pertsonalki edota gutun ziurtatu bidez bidali beharko dira ELHUYAR FUNDAZIOAREN egoitzara, helbide honetara: Zelai Haundi, 3 Osinalde Industrialdea. 20107 USURBIL (GIPUZKOA).

Proposamena gutun ziurtatu bidez bidaltzen bada, bidalketaren egiaztagiriarekin justifikatu beharko da bidaltze-data, eta ELHUYAR FUNDAZIOARI jakinarazi beharko zaio horren berri, mezu elektronikoko bat bidalita helbide honetara: [j.aztiria@elhuyar.eus](mailto:j.aztiria@elhuyar.eus)

Adierazitako datatik hamar egun igarota ELHUYAR FUNDAZIOAREN egoitzan ez bada jaso dokumentazioa, dokumentazio hori ez da inola ere onartuko.

Eskaintzak aurkezteko epea 2018ko martxoaren 22an bukatuko da, **13:00etan**.

Deialdiari buruzko informazioa azaltzen den webgunea: <https://www.elhuyar.eus/es>.

Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du. Ez da onartuko eskaintzen aldaerarik.

## I. ERANSKINA

### PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik,.....jaunak/andreak, egoitza  
..... herriko.....kalean duenak eta  
NAN-zenbakia..... duenak, nire izenean edo  
..... enpresaren izenean (enpresaren datuak:  
herria:.....kalea:.....PK:.....Tel.:.....  
..... IFK:.....)

### AITORTZEN DUT

I ..... helburua duen kontratua esleitzeko lizitazio-iragarkiaren berri dudala.

II Baldintza-orria, klausulak eta kontratuak bete beharreko gainerako dokumentazioa ezagutzen dudala, eta berariaz onartzen eta ontzat hartzen ditudala guztiak.

III Eskaintza honen aurkezpenari dagokionez, zenbateko honetan egitea proposatzen dudala:.....

.....(e)n, .....ko.....(a)ren.....(e)(a)n

Sinatua:

## II. ERANSKINA

### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

.....(e)k, ..... enpresa ordezkatzuz (enpresaren egoitza:.....; enpresaren IFK:.....) HONEN BIDEZ

#### ADIERAZTEN DU

Bere erantzukizunaren pean:

- Ez duela kontratatzeko debekurik eta zergen inguruko eta gizarte-segurantzako betebeharrak egunean dituela, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko (2011ko azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena) 60. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Baldintzarik gabe onartzen dituela lizitazio hau arautzen duten orriak eta/edo proiektuak.
- Kontratazio-espeditentari dagokionez, Orrietan eskatzen diren kaudimen-baldintzak eta enpresa gaikuntzakoak/profesionalekoak betetzen dituela.

Hala jasota gera dadin eta ELHUYAR FUNDAZIOAREN aurrean dagozkion ondorioak izan ditzan, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 146.4. artikuluan ezarritakoa betez, dokumentu hau sinatzen du

.....(e)n .....ko .....(a)ren .....(e)(a)n

## EFA227/16/LINGUATEC “Mugaz gaindiko kooperazioaren garapena eta hizkuntza-teknologiaren jakintzaren transferentzia” PROIEKTUAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO ADMINISTRATIBORAKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZAK

.

### **BALDINTZA TEKNIKOAK**

2018ko otsailaren 12a

2016ko abuztuaren 17an, INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren 2.2 bertsioa onartu zen, Europako Batzordearen erabaki bidez. Programaren helburu orokorra da mugaz gaindiko eremuaren integrazio ekonomiko eta sozialarekin jarraitzea eta hura indartzea lankidetzaren bidez. Horretarako, frantses, espainiar eta andorreatar bazkideek lurralde hautagarrian egindako lankidetzaren proiektuak sustatzen eta batera finantzatzen ditu. INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programa Europar Batasunak finantzatzen du, Eskualde Garapeneko Europako Funtseko (EGEF) laguntza teknikorik gabe) 178 milioi euroko aurrekontu totalarekin.

2016ko azaroaren 4an, POCTEFAren Segimendu Batzordeak INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren bigarren deialdiaren testu ofiziala onartu zuen.

ELHUYAR FUNDAZIOAK, mugaz gaindiko partzuergo baten taldeburu gisa, EFA227/16/LINGUATEC “Mugaz gaindiko kooperazioaren garapena eta hizkuntza-teknologiaren jakintzaren transferentzia” proiektua aurkeztu zuen POCTEFA proiektuen bigarren deialdira 2017ko maiatzaren 30ean.

POCTEFA 2014-2020ko Programazio Batzordeak (Biarritz, 2017ko azaroaren 8a) bigarren deialdiaren ebazpena onartu zuen, mugaz gaindiko 62 lankidetzaren proiektuekin eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF) esleitutako 71 milioi euroekin. EFA227/16/LINGUATEC proiektua izan zen Batzordeak hautatu zuenetako bat.

EFA227/16/LINGUATEC proiektua *2018ko urtarrilaren 31n onartu zuen behin betiko Programazio Batzordeak*, 1.227.500 euroko aurrekontuarekin; aurrekontu horren % 65 Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF) finantzatzen du Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren bitartez.

EFA 227/16/LINGUATEC proiektuaren helburu nagusia da aragoieraren, euskararen eta okzitanieraren digitalizazio-maila hobetuko duten baliabide, tresna eta aplikazio linguistiko berritzaileak garatu, frogatu eta zabaltzea. Horretarako, partzuergo bat du, 6

erakunde hauek osatua:

1. 1. bazkidea, taldeburua: ELHUYAR FUNDAZIOA
2. 2. bazkidea: LO CONGRÈS PERMANENT DE LA LENGA OCCITANA
3. 3. bazkidea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
4. 4. bazkidea: CNRS (CENTRE NATIONAL DE LA RECHERCHE SCIENTIFIQUE)-  
DELEGATION REGIONALE MIDIPYRENEES
5. 5. bazkidea: EUSKALTZAINDIA
6. 6. bazkidea: SOCIEDAD DE PROMOCIÓN Y GESTIÓN DEL TURISMO ARAGONÉS SLU

LINGUATEC Proiektuaren ekintza teknikoekin helburu hauek lortzea espero da:

- Aragoieraren digitalizazioaren bide-orri bat,
- 5 baliabide linguistiko berri (okzitaniera: lexiko elebakarra eta ele bikoia – okzitaniera/beste hizkuntza batzuk–, analisi morfosintaktikoa eta sintaktikoa; euskara: ahots-ezagutzea)
- 8 tresna linguistiko garatu edo hobetzea (Okzitanieraren, aragoieraren eta Iparraldeko euskararen ahots-sintesia; okzitanieraren eta okzitanieraren aldaeren testu-detektagailua; frantsesa-okzitaniera, espainiera-euskara, espainiera-aragoiera itzulpen automatikoen hobekuntza).
- 6 aplikazio berritzaile garatzea: Webguneetarako itzulpen automatikoko barra deskargagarria; CMSren itzulpen automatikoko aplikazioa; Pirinioetako hizkuntzen arteko itzulpen automatikoko app-a; Euskara Batuaren Eskuliburu Digitala; Onlineko Aragoiera Hiztegia; web-bilatzaile semantiko eleaniztuna.
- Unibertsitate eta enpresa arteko 2 akordio, irtenbideak merkaturatzeko.

Mugaz gaindiko lankidetzari esker, jakintzak transferitu eta merkatu-potentziala duten irtenbide linguistikoak garatuko dira; era berean, onuragarriak izango dira hizkuntzen profesionalentzat, eduki eleaniztunetarako sarbidea izango du publikoak, eta hizkuntza-teknologiaren mugaz gaindiko kluster baten garapenean aurrera egin ahal izango da.

Bazkide guztiek proiektua garatzeko jarduera batzuk dituzte esleituak. Kudeaketarako eta koordinaziorako kanpoko laguntza teknikoa behar da; baldintza-orri hauetan arautzen da kanpoko laguntza tekniko horren kontratazioa.

Lan espezifiko hauek egin beharko dira kontratazio honen esparruan:

- Proiektuaren koordinazio orokor administratiboa.
- Aurreikusitako jarduera eta emaitzen plangintza egitea.
- Programaren autoritateekiko komunikazioa.
- Bazkideen zalantzak argitzea.
- POCTEFA programaren eskaerei erantzutea.
- Partzuergoko kideen arteko komunikazioa.
- Partzuergoaren bilerak antolatu eta koordinatzea.
- Txostenak eta gastu-justifikazioak egitea.
- Finantzen segimendua egitea.
- Betebeharrak betetzeari buruzko aholkularitza eta araudi aplikagarria errespetatzea.